



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos

Esp.: CN24-001

IRIZPEN ZK.: D24-003

IRIZPENA, HAUTESLE ETA HAUTAGAI ZERRENDA BATZUEN ARGITALPENEN EDUKIARI BURUZKOA, TOKI ADMINISTRAZIO BATEN ZERBITZUPEKO LANGILEEN ORDEZKARITZA-ORGANOEN HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA

AURREKARIAK

LEHENENGO: Getxoko Udaleko datuak babesteko ordezkariak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

«Aurrekariak

Udalean egindako azken sindikatu-hauteskundeak direla eta, idazki hau sinatzen duen pertsonari kontsulta bat egin zaio, hauteskunde horietako hautagaien zerrenda edo erroldak argitaratzean agertu behar diren datuei buruz.

Indarrean dagoen araudiaren arabera –irailaren 9ko 1846/1994 Errege Dekretua–, zerrenda eta errolda horietan honako datu hauek agertu behar dira: Izena, abizenak, NAN, sexua, jaioteguna eta funtzio publikoan aintzatetsitako antzintasun-data. (14. artikulua)

Hauteskunde-araudi horretan agertzen denez, beharrezkoa da hauteskunde-prozesuan zerrendak eta erroldak sindikatuen iragarki-oholean argitaratzea.

Kontsultan azaltzen diren galderak:

Datuen babesaren arloko agintaritzen araudian eta orain arte argitaratutako irizpen eta dokumentuetan ikusi da askotariko ondorioak agertzen direla errolden datu guztiak argitaratu ahal izateari buruz. Bada, hori guztia kontuan hartuta, honako galdera hauek sortzen dira:

Sindikatuaren iragarki-oholetan hautagai-erroldetako zein datu pertsonal argitaratu ahal dira? Lortu nahi den helbururako behar-beharrezkoak diren datuak izan beharko lirateke? Zein izango lirateke datu horiek?

Irizpide horri jarraitu beharko litzaioke hauteskunde-prozesuan sindikatu-errolda guztiak (lan-arlokoak, hautesle eta hautagaienak, behin-behineko eta behin betikoak) argitaratzeko?

Eta, azkenik, DPBEBLO argitaratu ostean nortasun-agiri nazionalaren seudonimizazioari buruz arauaren zazpigarren xedapen gehigarrian agertzen den agindua aplikatu beharko litzateke?»

BIGARRENA: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari dagokio egindako kontsultari erantzuteko irizpena ematea, abenduaren 21eko 16/2023 Legearen, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarenaren 6. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren



2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 58.3 b) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

GOGOETAK

I

Udalak egindako kontsultan zenbait galdera egiten dira toki-administrazio horren zerbitzupeko langileen ordezkari-organoen hauteskunde-prozeduraren ondorioz hainbat zerrenda (hautesleak, hautagarriak, hautagaiak) argitaratzean agertu behar den edukia mugatzeari buruz.

Erakunde honek datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik –eta soilik ikuspuntu horretatik– emango dio erantzuna egindako kontsultari.

DBEOk 4.1) artikuluan honela definitzen du zer den **datu pertsonala**:

«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Era berean, DBEOk 4.2) artikuluan honela definitzen du **tratamendua**:

*«datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, **hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma**, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

Administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ordezkari-organotarako hauteskunde-prozesuetan esku hartzen duten pertsonen informazioa duten zerrendak argitaratzea datu pertsonalen tratamendua da eta, beraz, datuak babesteko araudiaren mendean dago.

Adierazi den tratamenduak babesa izan behar du DBEOren 6.1 artikuluan jasotzen diren oinarri juridikoetako batean eta, kasu honetan, zehazki, babesa c) letran izango luke, hau da, *«tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko».*

Eta DBEOren 6.3 artikuluan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren (DPBEDBLO) 8.1 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, tratamendua arduradunari legez eskatzen zaion lege-eginbehar batean oinarrituko bada, nahitaez Europar Batasuneko zuzenbidearen arau batek edo lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du.

Administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ordezkari-organok aukeratzeko hauteskunde-prozesuen arloan 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina** onartzen duena aplikatu behar da. Legegintzako Errege Dekretu horrek 44. artikuluan xedatzen



duenez, hauteskunde-prozedura hori **erregelamendu** bidez ezarriko da, honako irizpide orokor hauek aintzakotzat hartuta:

«a) Hautesketa botoa bakarka, aske, zuzenean eta isilpean emanda egingo da, eta botoa postaz edo beste bide telematiko batzuk erabilita bidali ahal izango da.

*b) **Zerbitzu aktiboko egoeran dauden funtzionarioak izango dira hautesle eta hautagai.** Izendapena errege-dekretu bidez edo autonomia-erkidegoetako nahiz Ceuta eta Melilla hirietako gobernu kontseiluen dekretu bidez egin denean, postu horiek betetzen ari diren funtzionarioak ez dira hautesletzat eta hautagaitzat joko.*

c) Legez eratutako erakunde sindikalek edo sindikatu-koalizioek aurkeztu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak, eta hauteskunde-unitate bereko hautesle-taldeek ere bai, baldin eta taldekideen kopurua aukeratu behar den ordezkari kopuruaren hirukoitza bada gutxienez.

*d) Langileen batzordeak aukeratzeko, **zerrenda itxiak** erabiliko dira zuzendutako sistema proportzionalaren bitartez, eta langileen ordezkariak hautatzeko, **zerrenda irekiak** eta gehiengo-sistema.*

*e) Hauteskunde-organoak dira, batetik, hauteskunde-prozedura zuzentzeko eta garatzeko eratzten diren **hauteskunde-mahaiak**, eta, bestetik, emaitzak zenbatzeko eta egiaztatzeko dauden bulego publiko iraunkorrak, laneko arautegian erregulatutakoak.*

f) Inpugnazioak arbitraje-prozedura baten arabera bideratuko dira, hauteskunde-akten inskripzioa ukatzeko erabakien aurkako erreklamazioak izan ezik, horiek zuzenean aurkeztu ahal izango dira-eta lan-arloko jurisdikzioan.

Erregelamendu batera jo dugunez, arlo horretan indarrean dagoen araudira goaz, funtsean irailaren 9ko 1846/1994 Errege Dekretuan, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileen ordezkari-taldea-organotarako hauteskundeei buruzko Erregelamenduan jasota dagoen horretara. Errege Dekretu horren 1.5 artikuluan ezartzen denez, erregelamenduan jasota dauden arauak osagarriak dira autonomia-erkidegoen administrazioarentzat eta toki-administrazioarentzat.

Kontsultan hautesleen zerrendak eta hautagaien zerrendak, behin-behinekoak zein behin betikoak argitaratzea aipatzen da.

Haitesleen zerrendari eta zerrenda hori publiko egiteari dagokionez, 1846/1994 Dekretuaren 12. artikuluan eta hurrengoetan xedatuta dagoena aplikatu behar da.

1846/1994 Errege Dekretuaren 12. artikuluan hauteskunde-mahaien eginkizunak azaltzen dira. Honako hauek dira eginkizun horietako batzuk:

*«a) Funtzionarioen errolda prestatu eta **argitaratzea, hautesleak eta funtzionario hautagarriak** aipatuta.*

b) Erroldan sartu, kendu edo zuzendu behar diren datuei buruzko gorabehera eta erreklamazioak ebaztea.

c) Hauteskunde-mahai partzial bakoitzari dagozkion hautesle-erroldak prestatzea.

(...)

f) Aurkezturiko hautagai-zerrendak aldarrikatu eta horren inguruan aurkezten diren erreklamazioak ebaztea. (...)».



14. artikuluan («Hautesleen errolda») honako hau xedatzen da:

«1. *Administrazioak hauteskunde-mahai koordinatzaileari edo, bestela, hauteskunde-mahai bakarrari helaraziko dio **funtzionarioen errolda**, eredu arautuaren arabera, hauteskundeak sustatzeko asmoaren jakinarazpena hartu eta hamabi egun balioduneko epearen barruan.*

*Errolda horretan **hauteskunde-unitate horretako funtzionario guztien izen eta bi abizenak, jaiotze data, nortasun agiri nazionalaren zenbakia eta funtzio publikoan aitortu zaion antzinasuna azaldu beharko dira.***

2. *Hauteskunde-mahai koordinatzaileak **hautesleen zerrenda** prestatuko du, 9/1987 Legearen 16. artikuluen arabera, Administrazioak eman beharko dizkion bitartekoak erabiliz.*

*Langile-batzordeetarako hauteskundearen kasuan, **zabalkundea eman behar zaio zerrendari, iragarki-oholean jarrita, eta agerian egon behar da, gutxienez hirurogeita hamabi orduz.***

*Jendaurrean egoteko aurreko atalean adierazitako epea amaitu eta hurrengo hogeita lau orduko epea igaro arte, behin- behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahalko dira. Izapide hori amaitu eta hurrengo hogeita lau orduko epearen barruan, hauteskunde mahai koordinatzaileak erreklamazio horiek ebatzi eta **hautesleen behin betiko zerrenda** jarriko du jendaurrean. Epe horretan berean, hauteskunde-unitate horretan aukeratu behar den ordezkari kopurua zehaztuko du, 9/1987 Legearen 5. eta 8. artikuluen arabera.*

3. *Hautesleak eta hautagaiak izango dira:*

a) *Zerbitzu aktiboan dauden funtzionarioak, zeinek lan egiten duten hauteskunde-unitatean egikarituko baitituzte euren eskubide eta eginbeharrak.*

b) *Zerbitzu aktiboan egonik zerbitzu-eginkizunetan lanean ari diren funtzionarioak, modu efektiboan betetzen ari diren lanpostuari dagozkion hauteskunde-unitateetan sartuko dira.*

c) *Zerbitzu aktiboaren pareko egoeran dauden funtzionarioak, adibidez bitarteko funtzionarioak edo praktiketako funtzionarioak, zerbitzuak modu efektiboan zein hauteskunde-unitateetan ematen dituzten eta horietan izan ahalko dira hautesle eta hautagai.*

4. *Hautesle izango dira, baina ez hautagarri, behin-behineko lanpostuetan dauden funtzionario publikoak, konfiantzakotzat edo aholkularitza berezikotzat kalifikatuak, baldin eta zerbitzu berezien administrazio-egoera aukeratu badute. Halako funtzionarioek, zerbitzu berezien egoeran egongo ez balira egokituko litzaieken hauteskunde-unitatean egikarituko dute botoa emateko eskubidea.*

5. *Ondorio horietarako, eskatzen diren baldintzak botazioaren unean betetzen dituztenak hautesletzat joko dira, eta eskatzen diren baldintzak hautagai-zerrendak aurkezteko unean betetzen dituztenak, berriz, hautagarritzat».*

16. artikuluan, hautagai-zerrenden aurkezpenari eta aldarrikapenari buruzkoan, honako hau xedatzen da:

«1. *Hautagai-zerrendak eredu arautua erabiliz aurkeztu beharko dira. **Hautagai-zerrendak** kasuan kasuko hauteskunde-mahai koordinatzailean aurkeztuko dira, 14. artikuluan azaltzen den hautesleen behin- betiko zerrenda jendaurrean jartzen denetik bederatzi eguneko epearen barruan. **Hautagai-zerrendak hauteskunde-unitate***



horretako lantoki guztietako iragarki-oholetan jarriko dira jendaurrean. Mahaiak eskatu ahalko du antzemandako akatsak zuzen daitezela, behin betiko hautagaiak aldarrikatu baino lehen; halaber, hautagaien berrespena eskatu ahalko du, interesdunen beraien eskutik egin beharko dena. (...)

4. Bederatzi eguneko epe hori amaitu eta hurrengo bi laneguneko epean mahai eskudunak **aldarrikatuko ditu hautagai-zerrendak.** Aldarrikapenaren erabaki horren aurka eta hauteskunde-mahaiaren edozein egintzaren aurka erreklamazioa aurkeztu ahalko da hurrengo egun balioudunaren barruan, esku hartzen duen mahaiaren bertan, eta mahai horrek egun horren osteko lehen laneguneari ebatziko du (...).

1846/1994 Errege Dekretuaren 18. artikulua («Langileen ordezkarien hauteskundeak») honako hau dio:

«1. Langileen ordezkarien hauteskundeak egiten direnean, langileak kudeatzeko organoak, Erregelamendu honen 7. artikuluan azaltzen den epe berean, **funtzionarioen errolda** bidali behar die hauteskunde-mahaiko kideei; eredu arautuaren arabera egindakoa izan behar da.

2. Hauek dira hauteskunde-mahaiaren eginkizunak:

a) **Langileen errolda jarri behar du jendaurrean langileen artean, eta hautesle direnak aipatu behar ditu.**

b) Ordezkarikopurua finkatu behar du, eta hautagai-zerrendak aurkezteko azken eguna zehaztu.

c) Aurkeztutako **hautagai-zerrendak jaso eta aldarrikatu** behar ditu. (...).

Toki Administrazioaren zerbitzupeko langile lan-kontratudunen kasuan, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako **Langileen Estatutuaren Legean** eta enpresako langileen ordezkari-organotarako hauteskunde-erregelamendua onartzeko irailaren 9ko 1844/1994 Errege Dekretuan xedatuta dagoena aplikatuko da.

Hala, Langileen Estatutuaren hauteskunde-mahaiaren eginkizunak jasotzen dira:

«73. artikulua. Hauteskunde-mahaia.

(...) 2. Mahaia izango da hauteskunde-prozesu osoa zaintzeko ardura izango duena, eta bozketan buru izan, botoak zenbatu, dagokion akta jaso, eta aurkeztutako edozein erreklamaziori buruz erabakitzeko arduraduna.

«74. artikulua. Mahaiaren eginkizunak.

1. Hauteskundeak egiteko asmoa enpresari jakinarazi ondoren, enpresak, zazpi eguneko epean, mahaia osatu behar duten langileei eta langileen ordezkariari eman behar die horren berri; sustatzaileak ere aldi berean jarri behar ditu jakinaren gainean.

Hauteskundeak egiteko asmoaren jakinarazpeneari sustatzaileek finkatutako eguneari eratu behar die hauteskunde-mahaia formalki, horretarako egindako aktaren bidez; egun horretan emango zaio hasiera hauteskunde-prozesuari.

2. Langileen ordezkariak hautatzeko denean, enpresaburuak, epe berean, **langileen errolda** bidali behar die hauteskunde-mahaiko kideei; eredu arautuaren arabera egindakoa izan behar da.

Hauek dira hauteskunde-mahaiaren eginkizunak:



- a) **Langileen errolda jarri behar du jendaurrean langileen artean, eta hautesle direnak aipatu behar ditu.**
- b) Ordezkarri kopurua finkatu behar du, eta hautagai-zerrendak aurkezteko azken eguna zehaztu.
- c) Aurkeztutako **hautagai-zerrendak jaso eta aldarrikatu** behar ditu.
- d) Bozketa-eguna izendatu behar du.
- e) Boto-kontaketaren akta idatzi behar du, hiru egun naturaleko epea amaitu aurretik.

Mahaiak izendatu behar ditu egintza horietako bakoitzerako epeak, arrazoietan oinarrituta, eta inguruabarren arabera; baina mahaia eratzetik eta hauteskunde-eguna bitartean inola ere ezin izango da hamar egun baino gehiago igaro.

Hogeita hamar langile arteko lantokietako hauteskundeetan, langileen ordezkari bakar bat hautatzen denez, mahaia eratzen denetik bozketa egin eta hautatutako izangaia aldarrikatzera, hogeita lau ordu igaro behar dira, eta mahaiak, nolahi ere, nahiko aurrerapenez jarri behar du jendearen jakinaren gainean bozketa egiteko ordua. Erreklamazioen bat aurkezten bada, aktan jaso beharko da; baita mahaiak horretaz hartutako erabakia ere.

3. Enpresa-batzordeko kideetarako hauteskundeetan, hauteskunde-mahaia eratu eta gero, langileen errolda eskatu behar dio enpresaburuari, eta enpresaburuak emandako baliabideekin, hautesleen zerrenda egin behar du. **Zabalkundea eman behar zaio zerrendari, iragarki-oholean jarrita, eta agerian egon behar da, gutxienez hirurogeita hamabi orduz.**

Zerrenda agerian egoteko epea amaitu eta hurrengo hogeita lau orduetan gertatutako edozein gorabehera edo aurkeztutako erreklamazioak, hain zuzen, izenak sartu, kendu edo zuzenketak egiteko, mahaiak erabaki behar ditu. Hurrengo hogeita lau orduen barruan **jarriko du agerian behin betiko zerrenda**. Eta ondoren, mahaiak, edo mahai guztiek batera, 66. artikuluan xedatutakoa aplikatuz hautatu beharreko batzordeko kide kopurua zehaztuko du edo dute.

Hautesleen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo bederatzi egunen barruan aurkeztu behar dira hautagai-zerrendak. Epe hori amaitu eta hurrengo bi lanegunetan egin behar da **aldarrikapena**, esandako iragarki-oholetan argitaratuz. Aldarrikapen-akordioaren kontra erreklamazioak egin daitezke hurrengo lanegunetan, eta hurrengo egun balioudunetan erabaki beharko ditu mahaiak».

1844/1994 Errege Dekretuak langileen errolda arautzen du, baita hautagai-zerrenden aldarrikapena ere, eta zera dio:

«6. artikulua. Langileen errolda.

1. Langileen errolda Erregelamendu honen eranskineko 2 zenbakiko ereduaren arabera izango da.

2. Langileen ordezkarien eta enpresa-batzordeko kideen hauteskundeetan, sustatzaileek, hauteskundeak egiteko asmoa dutela enpresari komunikatu ondoren, enpresak, zazpi eguneko epea igaro ondoren, komunikazio hori helaraziko die langileei eta azken horiek mahaia eratu beharko dute; epe hori bera igarotakoan, hauteskunde-mahaiko kideei langileen errolda bidaliko die, hautesle eta hautagarri izateko adinaren eta antzinasunaren baldintzak betetzen dituzten langileak adierazita, Langileen Estatutuaren 69.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.



*Hauteskunde-mahaiak langileen errolda jendaurrean jarriko du langileen artean, **hautesle eta hautagarri** nortzuk diren adierazita, Langileen Estatutuaren 69.2 artikulua arabera. Botazioaren ondorioetarako, langileen errolda hautesleen zerrendatzat joko da.*

*Enpresa-batzordeetarako hauteskundeak direnean, hautesleen eta hautagarrien zerrenda **iragarki-oholetan jarriko da jendaurrean**, gutxienez hirurogeita hamabi orduko epean.*

*3. 50 langile edo gehiagoko enpresak edo lantokiak direnean, langileen erroldan langile guztien **izen eta bi abizenak, sexua, jaiotze data, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, kategoria edo lanbide-taldea eta antzintasuna azaldu beharko dira**, eta teknikarien eta administrarien elkargo batean banatuko da, baita espezialisten eta kualifikatu gabeen elkargo batean ere, eta hirugarren elkargo batean ere bai, baldin eta hitzarmen kolektiboan hala itundu bada, Langileen Estatutuaren 71.1 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.*

4. Enpresak, era berean, langileen erroldaren zerrendan gehienez urtebeteko iraupeneko kontratua duten langileen zerrenda jarriko du, eta itundutako kontratuaren iraupena agerraraziko du, baita hauteskundearen deialdia egin arte lan egindako egunen kopurua ere.

5. Langileen Estatutuaren 69.2 artikulua arabera hautesle eta hautagarri izateko eskatzen diren adinaren eta antzintasunaren baldintzak betetze aldera, ulertzen da baldintza horiek botazioaren unean bete behar direla hautesleen kasuan, eta hautagai-zerrenda aurkezteko unean hautagarrien kasuan».

«8. artikulua. Hautagai-zerrendak.

*1. Hautagai-zerrendak aurkezteko, Erregelamendu honen eranskineko 8 zenbakiko ereduak erabili behar da, eta hautagai bakoitzaren ondoan adieraziko da hautagai-zerrenda horri zein hurrenkeratan eman behar zaion botoa. Mahaiak eskatu ahalko du antzemandako akatsak zuzendu edo hautagaiak berretsi daitezela, **behin betiko hautagaiak aldarrikatu** baino lehen; hori guztia interesdunek beraiek eskatu beharko diote hauteskunde-mahaiari.*

Langile-taldeek aurkeztutako hautagai-zerrenden kasuan, identifikazio-datuak erantsi beharko dira, baita hautagai-zerrenda abalatzten duten sinadurak ere (...)».

Euskal Autonomia Erkidegoan azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskunde Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskatzailatza sortzekoan ezartzen diren arauak aplikatuko dira, eta dekretu horrek dioena ez doa inola ere orain arte azaldu den araudiaren kontra.

Zerrendak (hautesle, hautagarri eta hautagai-zerrendak) DBEOren 6.1 c) artikuluko oinarri juridikoaren babespean argitaratzen dira, hau da, oinarri juridikoa da azaldu den araudian jasotako eginbeharrak betetzea; beraz, lege-testu horren beraren 5.1 a) artikuluan ezartzen den zilegitasunaren printzipioa betetzen da.

Gorago aipatu den arauditik ondorioztatzen da hauteskunde-mahaiak [Toki Administrazioak eman behar dion hauteskunde-errolatik edo langileen erroldatik abiatuta] duela erantzukizuna hautesleen eta hautagarrien zerrendak langileen artean (funtzionarioak zein langile lan-kontratudunak, kasuan kasu) publiko egiteko eta hautagai-zerrendak aldarrikatzeko.



Eta zerrenda horiek iragarki-oholean argitaratu behar dira (hala ezartzen da espresuki langileen batzordeetarako edo enpresa-batzordeetarako hauteskundeetan), hauteskunde-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak ikusi eta onets dezaten, zuzendu beharreko hutsegiterik balego ere, eta gehienez ere hauteskunde-prozesuak eskatzen duen denboran.

Hauteskunde-mahaiak enplegatu publikoen artean zabaldu behar dituen zerrendetan argitaratu beharreko informazioaren edukiari dagokionez, araudiak ez du espresuki ezer ere azaltzen.

Erroldan agertu beharreko informazioa bai, ezarrita dago, eta hauteskunde-prozesuarekin zerikusia duen administrazio publikoak eman behar du hori.

Hala, hauteskunde-erroldan honako datu pertsonal hauek agertu behar dira:

- ***Hauteskunde-unitateko funtzionario guztien izen eta bi abizenak, sexua, jaiotze-data, nortasun agiri nazionalaren zenbakia eta funtzio publikoan aitortu zaion antzinasuna.***

Eta langileen erroldan, berriz, honako hauek:

- ***izen eta bi abizenak, sexua, jaiotze data, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, kategoria edo lanbide-taldea eta antzinasuna azaldu beharko dira, eta teknikarien eta administrarien elkargo batean banatuko da, baita espezialisten eta kualifikatu gabeen elkargo batean ere, eta hirugarren elkargo batean ere bai, baldin eta hitzarmen kolektiboan hala itundu bada.***

Eta erroldan jasotako datu pertsonaletatik abiatuta, hauteskunde-mahaiak ondoz ondoko zerrendak prestatu behar ditu, lehenengoz hautesle eta hautagarriena eta, geroago, hautagaiena.

Hauteskunde-mahaiak, zerrenden argitalpenaren arduradun den aldetik, tratamendu horretarako DBEOren 5. artikuluan ezartzen diren printzipioak bete behar ditu, bereziki honako hauek:

- ***«Minimizazioaren printzipioa»***, zeinaren arabera datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurri mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera, datu gehiegiren tratamendua saihesteko.
- ***«Zehaztasunaren printzipioa»***, zeinaren arabera datu pertsonalak zehatzak eta, beharrezkoa bada, eguneratuak izango baitira; arrazoizko neurri guztiak hartuko dira luzamendurik gabe ezerezteko edo zuzentzeko tratamenduaren helburuei begira zehaztugabeak diren datu pertsonalak.
- ***«Kontserbazio-epa mugatzearen printzipioa»***, zeinaren arabera datu pertsonalen tratamenduaren helburuei begira interesdunak identifikatzeko beharrezkoa den baino denbora gehiago ez edukitzeko moduan egongo dira datu pertsonalak.

Printzipio horien arabera eta kontuan hartuta argitalpenaren xedea dela hauteskunde-prozesuan parte hartzen duten pertsonak jakin ahal izatea nor diren hautesleak eta hautagarriak eta zein hautagai aurkezten diren, nahikoa litzateke xede hori betetzeko ezinbestekoak diren erroldako datuak argitaratzea; hala eta guztiz ere, hautagai-zerrendak aldarrikatzeko, baliteke erroldak ematen duenaz bestelako informazioa eman behar izatea.



Minimizazioaren printzipioa betetzearren eta, aldi berean, pertsonen identitatearen osotasuna bermatzeko, nahikoa litzateke izena, abizenak eta NANaren zenbakia argitaratzea, DPBEBLOren zazpigarren xedapen gehigarriak azaltzen duen moduan.

Jakinarazpenetan interesdunak iragarkien eta argitaratutako administrazio-egintzen bidez identifikatzeko ezartzen den zazpigarren xedapen gehigarri hori kontsultaren xede diren zerrendak argitaratzeko ere aplikatzen da, manu horren oinarri den minimizazioaren printzipioaren arabera.

Antzeko iritzia du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, 2019-0036 txostenean emandako irizpenean, baita aipatzen duen 193/2018 txostenean ere; hitzez hitz honako hau dio:

«[...] XVI.- Azkenik, Unibertsitateak argitaratzen dituen hauteskunde-erroldei DPBEBLOren zazpigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena aplikatzeari dagokionez, berez administrazio-egintza baten argitalpena ez izan arren, bidezkoztat jotzen da xedapen gehigarri hori aplikatzea datuen minimizazioaren printzipioaren babespean, 193/2018 txostenean zinpekoen zerrendak argitaratzeari buruz azaldu denez:

Xedapen horren edukiak bat egin behar du Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan jasotzen diren datuen babeserako printzipioekin. Hemen dagokionerako, 5. artikuluko 1. apartatuko c) eta d) letrak minimizazioaren eta zehaztasunaren printzipioei buruzkoak dira, eta letra horiek diotena guztiz esan daitezke herritarrei administrazio-egintzak jakinarazteari edo egintza horiek aldizkari ofizialetan argitaratzeari buruz.

“5.1 Printzipio hauek bete behar dituzte datu pertsonalek: (...)

c) egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurritik mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera (‘datuak minimizatzea’).

d) zehatzak eta, beharrezkoa bada, eguneratuak izango dira; arrazoizko neurri guztiak hartuko dira luzamendurik gabe ezerezteko edo zuzentzeko tratamenduaren helburuei begira zehaztugabeak diren datu pertsonalak (‘zehaztasuna’).

Bada, DPBEBLOren zazpigarren xedapen gehigarria kontsultaren xede denaren antzeko kasuetan interesdunak identifikatzeko moduari buruzkoa da, eta bereziki arautzen dira argitalpenaren xedea egintza hartzaileari jakinaraztea –egintza hori jendaurrean jarri nahi izan gabe– den kasuak. Aldiz, baldin eta –esate baterako– zehapen-ebazpen baten bidez arau-hausle bat aldizkari ofizial batean ohartarazpen publikoa eginez kondenatzen bada, ohartarazpena argitaratzean arau-hauslea osorik identifikatu beharko da, identifikazio osoa saihesten saiatu beharrean.

Legegileak DPBEBLOren zazpigarren xedapen gehigarria txertatuz lortu nahi duena da, datuak babesteko printzipioak bete daitezela bermatzeaz gain, xedapen hori txertatuz pertsonen identitatearen osotasuna bermatzea. Xedea ez da gardentasuna mugatzea, baizik eta ziurtatzea pertsona baten identifikazio-datuak osorik argitara ez daitezela, halako moduz non zenbati egoera saihestuko baitira: identitatea usurpatzea, askatasun pertsonalean eta



nortasunaren garapen askean bidegabe esku sartzea, pertsegitzea, jarraipena edo jazarpena edo, azken batean, bestelako ez-zilegi penalak edo administratiboak.

Manu horren bitartez, gure ordenamenduan irizpide bateratzaile bat txertatzen da, ezertan ere galarazi gabe egoera berezietan –genero-indarkeriaren biktimekin gertatzen denez (zazpigarren xedapen gehigarriko 2. apartatuan ikus daiteke)– konfidentzialtasun-maila handiagoa ezartzea».

Halaber, nabarmendu behar da zerrendak iragarki-oholean argitaratzean ez direla jarri behar hauteskunde-prozesuarekin zerikusirik ez duten pertsonen ikusteko moduko lekuetan. Eta araudian administrazioaren web-orriaren bitartez argitaratzeko babesik badago, ziurtatu beharko da prozesuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek datuetara irispiderik izango ez dutela.

Azkenik, zerrendak argitaratuta zenbat denboran egongo diren, gorago azaldu den araudian ezarritako gutxieneko epeak errespetatu beharko dira eta, nolana ere, tratamendu hori egiteari utziko zaio hauteskunde-prozesua amaitutakoan, hau da, datu pertsonalak jendaurrean agertuko dira modu efektiboan egikaritu daitezela lagundu nahi den eskubideak baliatzeko epemugara arte, ez gehiago.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 7a